



**PRENTSA-OHARRA**

Gladys Sariaren III. edizioa

## Abian da euskal ingurune digitaleko emakumeen lana aitortzen duen Gladys Saria

- *Gehenez 40 urte duten emakumeek garatutako ibilbidea saritu eta emakumezko erreferenteen proiektzioa bultzatzea du helburu Gladys Sariak*
- *Hautagaitza aurkezteko epemuga 2023ko ekainaren 20a izango da, eta norberak edo erakunde edo enpresa batek proposatu ahalko du hautagaiaren izena*
- *Aurten, berrikuntza bezala, irabazleak 4.000 euroko saria jasoko du, eta bere lana ezagutzera emateko hainbat hitzaldi emateko aukera izango du*

**Donostia, 2023ko apirilaren 28a-** PUNTUEUSek eta UPV/EHUko Informatika Fakultateak antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoaren eta Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen babesarekin, eta Danobatgroup industria-taldearen eta UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzaren laguntzarekin, Gladys Sariaren hirugarren edizioa aurkeztu dute.

Sariak euskal ingurune digitalean lan egiten duten emakumeen eginkizuna aitortzen du, hauen ibilbidea eta proiektzioa sarituz. Honen bidez, neska gazteak ibilbide teknologikoari ekitera animatzea du helburu, horrela euskal erreferente berriak sortuz.

Gaur aurkeztu da ekimena prentsaurrean, sariaren babesle den Gipuzkoako Foru Aldundiko prentsa aretoan. Lorea Arakistain PUNTUEUSeko marketin-zuzendaria, Olatz Arbelaitz UPV/EHUko Informatikako Fakultateko Berdintasun Batzordeko kidea, Nerea Isasi Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko foru zuzendaria, Miren Elgarresta Emakundeko zuzendaria eta Iker Usabiaga, Danobatgroup industria-taldeko gestio sozialeko zuzendaria egon dira.



Hautagaitza aurkezteko pausuak zeintzuk diren azaldu dituzte, izan ere, norberak edo erakunde batek proposatu dezake hautagaiaren izena. Azken kasu honetan, hautagaiaren merezimenduak azaldu beharko dituzte hautagaitza aurkeztean.

Gladys Sarian izena emateko epea 2023ko ekainaren 20a arte egongo da zabalik [www.gladysaria.eus](http://www.gladysaria.eus) webgunean.

### 4.000 euroko saria

Aurtengo edizioko sari ekonomikoa iazkoa baino altuagoa izango da, izan ere, iaz irabazleak 3.000 euro jaso zituen, eta 2023ko irabazleak 4.000 saria jasoko du. Horrez gain, irabazleari bere jarduna azaltzen duen bideo laburra grabatuko zaio antolatzaileek gazteen artean zabaltzeko, eta hauekin adostutako eskoletan eta Kaixomundua.eus lehiaketaren sari banaketan hitzaldi motibatzaileak emango ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko zuzendariak, Nerea Isasi Bedayok, Gladys Sariaren garrantzia nabarmentzeaz gain, horrelako egitasmoen beharra azpimarratu du: “Etorkizuneko lanbideetan emakumeen presentzia bermatu behar dugu eta, horretarako, STEM alorreko emakumezko protagonistak bistaratu behar ditugu. Gladys Saria eremu honetan egin dezakeen ekarpena oso handia da, emakume informatikariek egiten duten lana ezagutzeko aukera ematen digulako eta berritzaileak eta puntakoak diren lanak erakusten dizkigulako. Emakumeek zientzia eta teknologiarik lotutako lan eta jakintza esparruetan duten presentziari buelta eman behar diogu, berdintasunean aurrera egiteko”.

Miren Elgarrestak, Emakundeko zuzendariak gehitu duenez, “sari honek ikusgarritasuna ematen die emakume zientzialariei eta gizarte honek behar duen zerbait da, batez ere, oso garrantzitsua delako neska gazteek erreferenteak izatea zientziaren munduan. Hobeto esanda, garrantzitsua da erreferenteak izatea eremu eta alor guztietan, sentitu dezaten nahi dutena izan daitezkeela, eta ez dagoela generoak markaturiko mugarik euren etorkizuna aukeratzerakoan. Izan ere, ondo dakigu estereotipoek itzelezko eragina daukatela norberak bere buruaz daukan kontzeptuan, eta emakumezkoek jasotzen dituzten aginduen artean, jasotzen dute zientzia eta teknologia mundua gehienbat gizonei dagokiela.”



## Profil ugari sektorean

PUNTUEUSeko Lorea Arakistainek azaldu duenez, “sariak helburu ugari ditu, eta horien artean STEM alorretan profil ugari daudela nabarmentzea da”. Izan ere, sektore hauetan aritzen diren profesionalak, zein Gladys Sarira aurkezten diren emakumeek ere, zeregin oso desberdinak dituzte beraien egunerokoan.

Irabazlea izendatzerako orduan, hainbat irizpide hartzen ditu kontuan epaimahaiak. “Gehienez 40 urte beteko duten emakumeei zuzenduta dago, eta hautagaien egoera pertsonalak bere ibilbide profesionalan izandako eragina izango da kontutan”, adierazi du Arakistainek.

Informatika Fakultateko ordezkaria, Olatz Arbelaitz Gallego, sektoreotan emakumezko erreferente berriak sortzeak Informatika Fakultatearentzat zein gizarte osoarentzat duen garrantziaz mintzo da: “Argi dago guk guztiok errazago proiektatzen dugula gure burua zerbaitetan gure antzekoa den jendea bertan ikusten badugu, eta horretarako gertuko erreferenteak behar ditugu”.

“Izan ere, azken urteetan, Informatika eta teknologiekin lotutako ikasketetara gerturatzen den emakume kopuru txikiak, urte askotan gure lurraldean zein mundu osoan %15aren azpitik egon denak, eragin zuzena du etorkizunean esparru digitalean arituko diren emakumeen kopuruan, emakumeek hain bogan dauden lanbide berrietara sartzeko edukiko duten aukeran, eta ondorioz, emakume horiek gizarteari egingo dioten ekarpenean” azaldu du Arbelaitzek.

Gladys Saria [PuntuEUS Fundazioa](#) eta [UPV/EHUko Informatika Fakultateak](#) sortu zuten 2021ean [Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoaren](#), [UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzaren](#) eta [Danobatgroup](#) industria-taldearen babesarekin. Aurtengo edizioan [Emakunde](#), Emakumearen Euskal Erakundea ere batu da sariaren babesle bezala. Iazko edizioan, 20 hautagaitza ebaluatu ziren eta antolatzaileek adierazi dutenez, “proposameneak maila oso altua erakutsi zuten eta gelditzeko etorri den saria dela uste dugu”.

## Ane Iturzaeta, lehen saritua



Ane Iturzaeta Agirre (Donostia, 1995) Gladys Sariaren lehen edizioko irabazlea izan zen 2021an. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza + Informatika Ingeniaritzako Gradu Bikoitza ikasi zuen Deustuko unibertsitatean. Gaur egun Custom Engineer bezala egiten du lan, eta bezeroen enpresak, sektore publiko zein pribatuetakoak, aurrera eramaten laguntzeaz arduratzen da. Horretarako eguneroko erronkei erantzuna ematen saiatzen da, adimen artifiziala eta datuak erabiliz.

### **Olatz Perez de Viñaspre, 2022ko irabazlea**

Olatz Perez de Viñaspre (Gasteiz, 1987) 2022ko Gladys Sariaren irabazlea izan zen. Ibilbide akademikoari dagokionez, sistemen informatikan ingeniari teknikoa eta informatikan ingeniaria da, UPV/EHUko Informatika Fakultatean burutu zituen ikasketak. Ondoren, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduko (HAP) masterra egin zuen, 2011-2013 urteetan. Azkenik, 2017an, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua doktoretza programa bukatu zuen, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatean, Donostian. Gaur egun irakasle atxikia da, UPV/EHUko Informatika Fakultateko Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia sailean eta ikerketa munduan ere dihardu.

### **Gladys Sariari buruz**

Gladys del Estal informatikariaren izena daraman sariaren helburua ingurune digitalean ari diren emakume gazte euskaldunak saritu, gazteentzat erreferente berriak sortu eta haien lana jendarteratzea da. Donostiako Informatika Fakultatean ikasi zuen emakume horren lana gogoraraztea ere lehiaketaren funtsetako bat da.

### **PUNTUEUS Fundazioari buruz**

PUNTUEUSek aurkeztu zuen, 2012ko maiatzean, .EUS domeinuaren eskaria ICANN erakundearen aurrean. Eta hura da, 2013an onarpena jaso zuenetik, .EUS domeinua kudeatu, kontrolatu eta administratzeko ardura duen erakundea.

PUNTUEUSen misioa gizartearen transformazio digitalean euskaratik eragitea da, eta hau gauzatzeko .EUS domeinuaren zabalkundea sustatu eta transformazio digitaleko



proiektu aurreratuak jartzen ditu abian. Une honetan, 14.000tik gora .EUS domeinu daude erregistratuta.

### UPV/EHUko Informatika Fakultateari buruz

UPV/EHUko Informatika Fakultatea duela 46 urte estatu espainiarrean informatika ikasketak eskaintzen hasi ziren lehenengo 3 zentroetako bat izan zen. Gaur egun 2 gradu titulazio; Informatika Ingeniaritza eta Adimen Artifiziala; 4 master titulu eta 2 doktorego-programa eskaintzen ditu, eta bertako irakasle eta ikerlariek 17 ikerketa taldetan hartzen dute parte. Horrez gain, fakultateak lankidetzaz ugari ditu inguruko enpresekin.

### INFORMAZIO GEHIAGO

Ainhoa Arana

[prentsa@puntu.eus](mailto:prentsa@puntu.eus) | 659 09 69 68